




## EAEko ekonomiaren termometroa 129,0ra jaitsi da

EAEko ekonomiaren termometroa  
Indizea




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Maiatzean, EAEko ekonomiaren termometroa 129,0 puntutan kokatu zen, hazkunde sendoko eremuaren barruan. Hala eta guztiz ere, adierazle horrek hiru hilabeteko moteltze arina izan du. Kontsumo pribatua da eritimo galera txiki horren erantzulea, inflazioak erosteko ahalmenean duen eraginagatik.

## Sozietateen sorrerak bere horretan jarraitzen du EAEn

EAEn sortutako sozietateak  
Urte bakoitzeko urtarriletik apirilera bitartean




Iturria: INE.

2022. urteko lehen lau hilabeteetan 1.120 sozietate eratu ziren EAEn guztira, hots, aurreko urtean lortu zen ia kopuru bera. Bi urteetako zifra horiek pandemiaren aurreko urteetan jaso zirenak baino pixka bat bakarrik txikiagoak dira.



## EAEko KPIa %8,3an kokatu zen maiatzean

Kontsumoko prezioen indizea (KPI)  
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

Maiatzean, EAEko KPI indizea, urte arteko tasan, %8,3an kokatu zen, hots, apirileko datua baino puntu erdi bat gorago. Bestalde, azpiko inflazioa %4,7 hazi zen, kasu horretan aurreko hilean baino lau hamarren gehiago. Erregaiak, elikagai batzuek eta jatetxeek eragiten dute gorakada hori.

## Etxebizitzak %6,3 garestitu ziren lehen hiruhilekoan

Etxebizitzen prezioa EAEn  
Indizea



Iturria: INE.

INEk argitaratutako informazioaren arabera, **2022ko lehen hiruhilekoan etxebizitzen prezioa %6,3 garestitu zen EAEn urte arteko tasan**. Pixkanaka, etxebizitzaren prezioak suspertzen ari dira, baina 2008-2009ko finantza krisiaren aurreko mailetatik urrun daude oraindik.